

2011-2012

ESKOLAKO AGENDA 21 LAUDIO – ELIKADURA JASANGARRIA



Galemys S.L.

2011-2012

[F.LEGORBURU IKASTETXEA]

SARRERA

Jaun-andre agurgarriak, foro honetara gatzoz Laudioko ikasleen izenean, ikasturte honetan 2011-12 Eskolako Agenda 21ean lortutako emaitzak aurkezteko. Herriko 7 ikastetxetako 2.926 ikaslek **Elikadura Jasangarrria** gaia landu dugu.

Landutako gaiak honako hauek izan dira:

- Bertako eta garaiko elikagaiak.
- Dieta bereziak.
- Elikadura, eremu naturalak eta paisaiak.
- Elikadura osasuntsua eta bizi-kalitatea.
- Ariketa fisikoa versus bideojokoak eta telebista.
- Produktuen etiketak
- Elikadura subiranotasuna, kontsumo taldeak eta bidezko merkataritza
- Elikagai ekologikoak versus transgenikoak.
- Elikagaiak zentzuz erostea.

BERTAKO ETA GARAICO ELIKAGAIK

Ikasleok senideak, eta herriko auzotarrak elkarrizketatu ditugu nola elikatzen garen jakiteko; bertako eta garaiko produktuak kontsumitzen ditugun, elikagaiak erosterakoan zein irizpide jarraitzen dugun, ...

Ateratako ondorio nagusiak honako hauek izan dira:

- Barazki eta fruta gehiago eta gozoki, pastel, gutxiago jan beharko genuke osasuntsuago elikatzeke.
- Jende askok ez ditu garaiko produktuak ezgutzen, izan ere, urtean zehar denetarik aurki baitaiteke dendetan.
- Orokorrean prezioa begiratzen da eta ez jatorria.
- Bertako produktuak kontsumitzea osasuntsuagoa eta merkeagoa da, garraio laburra egin behar dutenez, denbora gutxiago pasatzen delako ekoiztu direnetik kontsumitzen diren arte. Bestalde, ingurumenarentzat ere osasuntsuagoa da, garraioarekin loturiko kutsadura murrizten baita.
- Garaiko produktuak osasuntsuagoak, freskoagoak eta zapoetsuagoak dira.
- Frutaren kasuan, askotan urrunetik dator (Huelvatik, Kanariar Uharteetatik, Zelanda Berritik,...).

Gure ohiturak hobetzeko, bertako eta garaiko produktuei ikasleek hurrengo honetara konprometitzen gara:

- *Osasuntsuago elikatzea eta garrantzi handiagoa ematea gosariari.*
- *Bertako eta garaiko elikagaiak ezagutzea, kontsumitzea eta erostea. Hau lortzeko, Laudioko herritar guztiok martxan jarri behar gara.*
- Baratzeko elikagaiak zein urtarokoak diren jakitea.
- Lagunen artean mezua zabaltzea.
- Etxean produktu gehiago landatzea edo haztea.
- Ahal den neurrian erosketak azoka eta denda txikietan egitea.

Gainera herritarrei hurrengo proposamen hauek egin dizkiegu:

- *Eusko Label produktuak erostea.*
- *Sasoiko fruituak eta barazkiak erostea.*
- Bertako eta sasoiko produktuak kontsumitzera animatu.
- Ostegunero herrian egiten den azokara joatea.
- Herriko baserriarren produktuak baloratzea eta kontsumitzea.
- Elikagaien kalitatea zaintzen duten auzoko denda txikietan erostea.

Eta Udalari zera proposatzen diogu:

- Bertako produktuen kontsumoa eta merkatuak sustatzea.
- Azoka guztietan produktu ekologikoak ekoizten dituztenei zergak (BEZ) kentzea prezioak jaisteko eta horrela produktu gehiago saldu ahal izateko eta produktuak dohainik dastatzera eman ditzatela.
- Merkatu egunak zabaldu edota postu gehiago jartzea.
- Udazkenean eta udan merkatuak antolatzea sasoiko produktuak eskuratzeko.
- Informazio kanpainak antolatzea sasoi bakoitzeko frutak eta barazkiak zeintzuk diren ezagutarazteko eta osasunarentzat eta ingurumenarentzat hobeagoak direla jakiteko. Kanpaina horren berri denon eskura dagoen "Zuin" aldizkariaren bidez ematea.
- Herriko dendei laguntzea bertako produktuen salmenta bultzatzeko.
- Denda txikiak babestea.
- Nahi duenak bere barazkiak baratz ekologikoetan ekoizteko lur sailak uztea.
- Herriko baserriarrei laguntza gehiago ematea.

[LA MILAGROSA]

DIETA BEREZIAK

Dieta ezberdin asko daudela ezagutu dugu eta jendeak dieta hauek arrazoi ezberdinengatik jarraitzen dituela ikusi dugu (gaixotasuna, intolerantzia, erlijioa,...).

Ikaskide eta senideei dieta bereziren bat jarraitzen ote zuten galdetu genien, eta jarraitzekotan horri buruz hitz egin zezatela eskatu genien.

Atera ditugun ondorio nagusiak hauek dira:

- Gehienek dieta bereziren bat jarraitzen dute osasun arazoengatik (alergiak, intolerantziak).
- Janari-denda guztietan ez daude jaki bereziak.
- Garestiagoak izaten dira.
- Normalean jatetxeetan ez dira dieta hauek kontutan hartzen.

Dieta bereziekin lotutako ohiturak hobetzeko ikasleak honakoa egitera konprometitzen gara:

- Dieta bereziak dituzten pertsonak kontuan izatera (urtebetetze ospakizunetan esate baterako).
- Dieta ezberdinei buruz informazioa bilatzea. Adibidez ikaskideekin hitz egin eta dieta horiei buruzko datu gehiago jasotzea (erlijioek zergatik eskatzen duten hori, e.a.).
- Txostena egin eta gurasoekin bilera izatea

Herritarrei luzatutako proposamena hurrengoa da:

- Arazoak dituzten pertsonak daudela gogoan izan behar dugu eta gure esku dagoena egin behar dugu beraiei laguntzeko.

Eta Udalari egiten diogun proposamena hauxe da:

- Erraztasunak eman dieta berezietan espezializaturiko jatetxeak irekitzeko.

ELIKADURA, EREMU NATURALAK ETA PAISAIK

Gure inguru naturalaren kontserbazioa eta bertako eta garaiko elikaduraren arteko harreman estua aztertu dugu. Horretarako antzinako argazkiak eta inguratzen gaituen landa eremua behatu ditugu.

Ateratako ondorio nagusiak hauek dira:

- Oso garrantzitsua da gure landa-paisaia mantentzea bertako eta sasoiko produktuak jan nahi baditugu.
- Nekazaritza ekologikoak paisaia hauek babesten laguntzen du ingurumena arriskuan jarri gabe.

Eremu naturalak eta landa-paisaia mantentzeko gure konpromisoak honako hauek dira:

- *Paisaia zaindu.*
- *Asteburuetan gune naturaletara joan.*

Eta herritarrei zera proposatzen diegu:

- *Lursailak eta basoak zaintzea eta zaborra ez botatzea.*

Eta Udalari egiten diogun proposamena hauxe da:

- *Gune naturaletan zuhaitzak landatu edo basa animaliak askatzea.*
- *Dauden lur eremuak mantentzea eta zaintzea.*
- *Zonalde berde gehiago jartzea.*
- *Herriko basoak era egokian izatea eta babestea.*
- *Nekazari eta abeltzainak babestea zergak ez kobratzea, abereen zainketa erraztea eta ekoizten dituzten produktuak merkatuan kokatzen laguntzea, bitartekari gutxi izateko.*

[LAUDIO IKASTOLA]

ELIKADURA OSASUNTSUA ETA BIZI-KALITATEA

Elikadura osasuntsua eramatea bizi-kalitatea izateko oso garrantzitsua dela jakin badakigu. Gure elikadura osasuntsua ote den egiaztatu dugu piramide nutrizionalaren bidez eta astean zehar jan ditugun elikagai guztiak idatzi ditugu ere.

Atera ditugun ondorio nagusiak hauek dira:

- *Gure elikadura, orokorrean, nahikoa orekatua da denetarik jaten dugulako eta eskolan elikadura orekatu baten garrantziaz jabetzen garelako.*
- *Arrain, fruta eta barazki behiago jan beharko genuke eta gozoki gutxiago.*
- *Urtebetetzeetan menu orekatuak egiten saiatu beharko gara.*

Gure elikadura hobetu eta ahalik eta osasuntsuena izan dadin honakoa egitera konprometitzen gara:

- *Denetarik jatea: arraina, fruta, barazkiak, zerealak, e.a.*
- *Hamaiketakoan eta askarian fruta eta esneki gehiago hartzea.*
- *Irakasleak adieraziko duen egunean (astean behin) derrigorrezkoa izango da fruta klasera eramatea.*
- *Fruta eta barazki gehiago jatea eta gozoki eta opil gutxiago.*
- *Eguneroko bazkariari buruz hitz egitea eta barazkiak jan dituen saritzea.*

- Ondo murtxikatzea.
- Otorduetan telebista ez ikustea.
- Gosariari garrantzia handiagoa ematea.

Herritarrei honakoa proposatzen diegu:

- *Produktu naturalak erostea.*
- Produktu ekologikoak ekoiztea eta ezagutzera ematea.
- Prestatutako janaria ez erostea.
- Egunerokoan betiko sukaldaritza prestatzea.
- Baserri bat bisitatzera joatea.
- Gure elikadura hobetzea osasuntsuago egoteko.
- Barazki eta fruta freskoak azokan erostea.

Eta gure proposamenak Udalarentzat hauek dira:

- *Gure osasuna eta bizi kalitatea hobetzeko mediku eta eskolarekin plan bat egitea.*
- Elikadura osasungarria sustatzeko ekimen praktikoak martxan jartzea: gosari osasungarriak eskoletan...
- Familientzako hitzaldiak antolatzea, elikadura osasungarriari buruz.
- Dieta mediterraneoaren bultzatzea kanpainen eta iragarkien bitartez, adibidez, karteekin ikastetxeetan.
- Laudioko baserri batetara txango bat antolatzea baratza ikusteko eta baserriarrak baratzean bertan azaltzea barazkien propietateak azaltzea.

[LAMUZA]

ARIKETA FISIKOA VERSUS BIDEOJOKOAK ETA TELEBISTA

Ariketa fisikoa egiten eta telebista edo ordenagailuaren aurrean eserita zenbat denbora egoten garen kalkulatu dugu. Gainera, herritik ibili gara kirola egiteko edo jolasteko dauden guneak ikusteko.

Ondorioak hauek izan dira:

- Nahikoa kirol egiten dugu baina telebista ikusten eta bideojokoekin denbora dezente ere pasatzen dugu.
- Denbora asko pasatzen dugu eserita edo mugitu gabe.
- Kirola egin beharko genuke egunero.
- Laudioko auzo gehienetan kirola egiteko eta jolasteko guneak daude baina gure ustez ez dira nahikoa.

Ariketa fisikoa egitea eta elikadura jasangarria eramatea gure osasunerako oso garrantzitsua denez, hurrengo honetara konprometitzen gara:

- *Ikastetxera oinez etortzea.*
- Eserita eta mugitu gabe denbora gutxiago egotea eta kirol gehiago egitea. Bideojokoetan denbora asko ez pasatzea, adibidez asteburuetan.
- Lagunekin kirol gehiago praktikatzea eta gure eguneroko bizitzan kirola barneratzea.

Herritarrei egin dizkiegun proposamenak jarraian aipatzen dira:

- *Ahal den neurrian autoa ez erabiltzea.*
- *Bizi kalitatea hobetzeko asmoz, kirola egin, kirol guneak errespetatu eta modu orekatuan elikatzea.*
- Ariketa fisikoa egiteko dauden ekipamenduak erabiltzea.

Proposamen hauei lotuta Udalari honakoa planteatzen diogu:

- *Kirol gune gehiago eraikitzea denontzat.*
- Ariketa fisikoa bultzatzeko, parkeetan, horretarako tresnak jartzea.
- Eskola arteko kirol olinpiadak martxan jartzea.
- Polikiroldegi bat Lateorro auzoan.
- Haurren jolastoki estalia.
- Patinez ibiltzeko leku aproposa.
- Rokodromo bat.
- Bidegorri luzeagoa.
- Dagoen zerbitzua hobetzea, eskaintza handitzea eta kirol parkeak bultzatzea.

ELIKAGAIEN ETIKETAK

Jendeak produktuak erosterakoan etiketei erreparatzen dien eta etiketa hauek ondo ulertzen ote dituen jakiteko senideak eta herritarrak elkarrizketatu ditugu. Eta elikagaien etiketak aztertzeke supermerkatuetara joan gara. Jakin badakigu oso garrantzitsua dela produktu bat erosi aurretik etiketa ondo irakurtzea, izan ere, informazio asko eskaintzen baitu, hala ere, jende askok ez ditu etiketak begiratzen.

Inkesta batzuk egin ondoren, gure ondorioak hauek dira:

- Batzuetan zaila da etiketak ulertzea.
- Gehienek ez dute etiketa gabeko produkturik erosten.
- Prezioa, iraungitze data eta marka da gehien begiratzen dena.

Produktu bat erosi baino lehen etiketa arretaz begiratzea garrantzitsua denez, hau da gure konpromisoa:

- *Jakiak erosi baino lehen , etiketak begiratzea non eta nola ekoiztu diren jakiteko.*
- Iraungitze datei erreparatzea.
- Karioletan hazitako oiloen arrautzarik ez erostea. (3. eta 4. Zenbakia dutenak).

Herritarrei haxe proposatzen diegu:

- Erosi baino lehenago, elikagaien etiketak ondo begiratzea, jakiteko nondik datozen, eta nola ekoiztu diren.

Eta Udalari jarraian agertzen dena planteatzen diogu:

- *Etiketen esanahia ulertarazteko informazioa kanpaina edo eta ikastaroak antolatzea, eta denon eskura dagoen "Zuin" aldizkarian hauen berri ematea.*

[LAUDIO LHUI]

ELIKADURA SUBIRANOTASUNA, KONTSUMO TALDEAK ETA BIDEZKO MERKATARITZA

Senideen elikatzeko ohiturak aztertu ondoren, etxeetan kontsumitzen diren elikagai asko beste herrialde batzuetatik datozela konturatu gara, beraz, elikadura subiranotasunik ez dagoela ondorioztatu dugu.

Jarraian ondorio nagusia adierazten da:

- Jaten ditugun elikagai asko urrutiko herrialdeetatik datoz eta honek bertako ekoizleengan eragina du.

Bestalde, gure herrian kontsumo talderik ba ote dagoen aztertu dugu eta bide batez Laudioko dendetan bidezko merkataritzako produktuak erosteko aukerarik ote dagoen aztertu dugu. Herrian ikertu ondoren, jendea elikadura jasangarriaren alde dagoela egiaztatu dugu, izan ere, kutsadura murriztu eta ekoizleek soldata duin bat izateko bide bat baita.

Honekin lotuta, gure ondorioak ondorengoak dira:

- Kontsumo taldeak beharrezkoak dira bertako ekoizleek merezi dutena irabazteko. Produktu naturalagoak dira, pestizidarik gabeak eta ez dira transgenikoak.
- Ekoizteko eragatik eta kontsumitzailearekiko gertutasunagatik kutsadura gutxitzen da.

- Oraindik jende gutxi ezagutzen ditu kontsumo taldeak eta hauen abantailak. Eta gutxi dira talde hauetan parte hartzen dutenak. Hala ere, ezagutzen dituztenak oso ondo baloratzen dituzte.
- Bidezko merkataritzako produktuak erosteko leku gutxi daude.
- Bidezko merkataritzako produktuak erosten baditugu, ekoizleek merezi dutena irabaziko dute, pobrezia murriztuko da eta gainera orain lana egin behar duten ume askok eskolara itzultzeko aukera izango dute.
- Orokorrean, jendeak ez ditu bidezko merkataritzaren abantailak ezagutzen.

Kontsumo taldeak bultzatzea eta bidezko merkataritzako produktuak kontsumitzea oso garrantzitsua dela uste dugu, horregatik honetara konprometitzen gara:

- *Kontsumo taldeen onurak zabalduko ditugu.*
- *Posible denean, bidezko merkataritzako produktuak erosiko ditugu.*

Herritarrei hurrengo hau proposatzen diegu:

- *Kontsumo taldeetan parte hartzea.*
- Bidezko merkataritzako produktuak erostea.

Eta gure Udalari hurrengo hobekuntza proposamen hauek planteatzen dizkiogu kontsumo taldeak eta bidezko merkataritza bultzatzeko:

- *Kontsumo taldeak sustatzea (kanpainak antolatu, jendea biltzeko lokalak utzi, e.a.).*
- Bidezko merkataritzako dendei erraztasunak ematea herrian horrelako dendak ireki eta sustatzeko.

[LAUDIO BHI]

ELIKAGAI EKOLOGIKOAK VERSUS TRANSGENIKOAK

Senide, herritar eta nekazariari inkesta egin diegu, produktu ekologiko eta transgenikoei buruz duten iritzia ezagutzeko.

Gure ondorio nagusiak hauek dira:

- Produktu ekologikoak zapoetsuagoak eta osasuntsuagoak dira baina garestiagoak.
- Ekoizle ekologikoentzat diru-laguntzak egon behar lirateke.
- Produktu ekologikoak sustatu behar dira.
- Gure osasuna eta ingurumenaren babesa bermatzen dute.
- Tokiko ekonomia bultzatzen dute.
- Herritarrak ez daude oso informatuak. Jendeak ez ditu argi nekazaritza ekologiko eta konbentzionalaren arteko desberdintasunak.

- Batzuetan produktu transgenikoak erosten ditugu transgenikoak direla jakin gabe eta gure osasunerako kaltegarriak izan daitezke.
- Transgenikoei buruz informazio gutxi dago eta kontsumitzaileen eskubidea da zer erosten duten jakitea. Garrantzitsua da transgenikorik jaten ote dugun jakitea eta produktuak aukeratu ahal izatea
- Produktuetan ez da ondo azaltzen transgenikoak diren ala ez. Etiketek ez dute informazio nahikoa.
- Etorkizunari begira ezjakintasunak kezkatzen gaitu: epe ertainera egon daitezkeen arazoak, bai gure osasunean bai ingurumenean.

Produktu ekologiko eta transgenikoen gaia oso garrantzitsua dela uste dugu eta gure konpromisoak hauek dira:

- *Baserritarrei zuzenki erostea.*
- *Azokako elikagai tradizionalak erostea.*
- Elikagai transgeniko gutxiago kontsumitzea.
- Elikagai transgenikorik ez erostea.
- Erosi baino lehen elikagaien etiketak begiratzea.
- Era ekologikoan ekoiztu diren produktu gehiago kontsumitzea.
- Bertoko nekazari eta abeltzainek ekoizten dituzten produktu ekologikoak erosi, behar duten laguntza eskaini, inguruko osasunean daukaten garrantzia argi izanik.

Gainera herritarrei jarraian ageri diren proposamenak egiten dizkiegu:

- *Produktu ekologikoak eta bertokoak gehiago erostea gure nekazaritza eta abeltzaintza bizirik mantentzeko.*
- *Lurrak izanez gero erabili, ezer ordaindu gabe edo alokairu merke baten truke nekazari ekologikoei utzi diezazkietela.*
- *Produktu ekologikoak ekoiztea.*
- Osasuntsu jan eta kalitatezko produktuak erostea.
- Jendea produktu ekologikoak erostera animatzea.
- Transgenikoak dituzten elikagaiak ez erostea.

Eta Udalari honakoa planteatzen diogu:

- *Ekoizpen ekologikoa sustatzen duten ekintzak bultzatzea: merkatuko postuak merkatzea, merkatu egunak zabaltzea, diru-laguntzak eskaintzea.*
- *Lurraren jabe direnak bertoko elikagaiak landatzen animatzeko kanpainak egitea.*
- *Hiritarrentzat eta ikastetxeentzat informazio kanpainak antolatzea..*
- *Merkatuko elikagai transgenikoak kentzea.*
- *Transgenikoen aurkako deklarazioa egitea.*

- Prezioak merkatzea.
- Produktu kimikoak ez erabiltzeko arauak jartzea.

ELIKAGAIAK ZENTZUZ EROSTEA

Botatzen edo alferrik galtzen dugun elikagai kopurua, elikadurarekin lotutako beste gai bat da. Eta honen inguruan jakin badakigu zentzuz eta beharrezkoa dena soilik erosi behar dela.

Horregatik honakoa egitera konprometitzen gara:

- Iraungitze data kontutan hartzea, baina bota baino lehen produktua ondo dagoen aztertzea
- Erosketak egin baino lehen, behar duguna ondo azertu eta hori bakarrik erostea.
- Janaria ahalik eta ondoen aprobetxatzea eta ez alferrik botatzea.
- Janari soberakinak zakarrontzira ez botatzea eta ahal den neurrian birziklatzea.

Herritarrei honakoa proposatzen diegu:

- Zentzuz kontsumitzea janaria alferrik ez galtzeko.

Udalari egin dizkiogun proposamenak jarraian aipatzen dira::

- *Iraungita edo iraungitzeko dauden produktuak (baina oraindik ondo daudenak), beharra duen jendearen artean banatzeko sistema bat diseinatzea. Adibidez Elikagaien Banku bat.*
- Udaletxeko aldizkarian errezetak jartzea, janariaren soberakinak aprobetxatzeko (mermeladak, kroketak,...).

[LATEORRO IKASTETXEA]

AURREKO URTEETAKO PROPOSAMENEN JARRAIPENA

Ikasturte honetan aurreko urteetan Udalari egindako proposamenen eta hartutako konpromisoen jarraipena uraren gaiari buruzkoa izan da, 2006-2007ko ikasturtean landutako gaia.

Jarraian bete diren proposamenak adierazten ditugu:

- *Ibaiaren ibilbideak hobetzea herritarrentzako, adibidez, paseoak eginez.*

Bete da eta ibilbidea oso polita da, ondo eginda dago eta egunero jende ugari erabiltzen du.

Bete ez diren proposamenak honako hauek dira:

- *Ibaiak eta inguruak garbi mantentzea.*
- *Ur zikinrentzako araztegia eraiki.*

Gu honakoa egitera konprometitzen gara:

- ✓ Ez dugu zaborra ibaira botako ezta txizarik egingo.
- ✓ Norbait ibaia zikintzen ikusten badugu hori ez egiteko esango diogu.
- ✓ Ur gutxiago erabiltzea (hortzak eta eskuak garbitu bitartean txorrota itxi, komuneko bonba gutxitan ematea...).
- ✓ Gure ibaiak garbi mantentzen saiatuko gara.

Herritarrei honakoa proposatzen diegu:

- ✓ ibaira gauzak ez botatzea.
- ✓ Komun zuloatik zaborrik ez botatzea.
- ✓ Ura zentzuz kontsumitzea (kotxeak hainbestetan ez garbitzea, dutxatzea bainatu ordez, garbiketa egiterakoan behar dugun ur kantitatea besterik ez erabiltzea...)
- ✓ Gure ibaiak eta lurpeko urak ez zikintzea.
- ✓ Xaboi gutxiago gastatzea.

Eta Udalari jarraian agertzen dena proposatzen diogu:

- ✓ Noizean behin ibaia zein ertzak garbitzea.
- ✓ Araztegia lehenbailehen egitea.

Gainera hauxe proposatu zen:

- *Zenbait ordutan ura moztu edo egun bakoitzean kontsumitu ahal den ur kantitate bat finkatzea.*

Guk ez dugu nahi Udalak ura moztea, eta ur kantitate bat finkatzeari ez deritzogu ondo, guk pentsatzen dugu herritarrok garelako horretaz arduratu behar garenok.

Alkatearen galderak ikasleei:

- Laudioko azokara inoiz joaten al zarete? Zergatik? Gustatzen al zaizue? Herritarrak joaten al dira?
- Egunero fruta jaten al duzue? Sasoikoa? Non erosten duzue?

- Zuen inguruan produktu berezirik jaten duen pertsonarik ba al dago? Ba al dakizue Laudioko edozein dendetan erosteko aukerarik duen? Dieta bereziak jarraitzen dituztenen artean, zeintzuk uste duzue dutela arazo gehien produktuak bilatzeko?
- Baserria daukazue? Edo lagun edo senide baten baserrira joaten al zarete? Bertoko eta garaiko produktuak kontsumitzen baditugu bere kontserbazioa laguntzen dugu. Nola?
- Gune naturaletara joaten al zarete? Landa-paisaiatik zer da gehien gustatzen zaizuen? Ondo mantendua dagoela uste al duzue?
- Ba al dakizue Laudion janari prestatua edo otordu lasterreko dendarik al dagoen? Joaten al zarete? Norekin?
- Zergatik ote da horren garrantzitsua dieta orekatua jarraitu eta denetarik jatea?
- Kirola egiten duzue egunero? Non? Kirol-instalazioak ondo daudela uste al duzue?
- Normalean, nola joaten zarete ikastetxera?
- Ondo begiratzen al dituzue produktuen etiketak? Zein uste duzue dela informazio garrantzitsuena?
- Produktuak ondo etiketatuak daudela uste al duzue? Zergatik?
- Bidezko merkataritzako produktuak saltzen dituzten dendak ezagutzen al dituzue? Zeintzuk? Zein produktu saltzen dute? Noizbait mota honetako produkturen bat erosi al duzue?
- Zuen familiak kontsumo talderen batean sartuak al daude?
- Produktu ekologikoak kontsumitzen dituzue? Non erosten dituzue? Zergatik ote dira konbentzionalak baino garestiagoak?
- Zein iritzi duzue produktu transgenikoei buruz?
- Janaria xahutzen duzuela uste al duzue? Zergatik?
- Elikagaien Bankuei buruz zer pentsatzen duzue? Ba al dakizue Laudioko elikadura-entresa edo supermerkatuek leku hauetara jakiak eramaten ote dituzten?

Hau da Laudioko haur eta gazteok Agenda 21ari egiten diogun ekarpena.

Eskerrak ematen dizkiogu Udalari gu entzun eta kontuan hartzeagatik. Espero dugu kontsumo arduratsuaren eta udalerriko hondakinen murrizketaren alde egin dugun lan eta esfortzu honek harrera ona izatea, eta Laudio “jasangarriago” bat lortzeko pauso txikiak modu bateratu eta parte-hartzaile batean eman ahal izatea.

Eskerrik asko zuen arretagatik eta hurrengora arte.